

Maria Luisa Segurola Otxoa
Azkoitia, Gipuzkoa (1933)

Aurkibidea

Biografia

Baserrian jaioa. Eskolako kontuak ondo gogoratzen ditu, eta baserriko lanak ere ederki ezagutzen ditu. Azkoitiko euskara aztertzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

AZK-004

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar, Karmen
- **Data:** 1998-01-01
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Baserriko bizimodua umetan

- **Erref:** AZK-004/001
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:01

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua txikitan: eskolara gutxi joaten ziren ordubeteko bidea zegoelako haraino, baserriko lanetan aritzen ziren, 11 anai-arreba ziren, hanka hutsik ibiltzen ziren...</p>

2. Baserritarren arteko liskarrak

- **Erref:** AZK-004/002
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:29

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

10-16 urte bitartean, etxeko lanak egiten ibili zen. Artzain ibili zen, eta behin tiro-hotsak entzun zituen, gizon batzuen arteko liskarra zela eta. Izan ere, garai hartan, baserritarren artean eztabaida zegoen: batzuek ganadua mantendu nahi zuten; besteek, ordea, pinuak jarri eta ganadua kendu. Azkenean, pinudiak jarri ziren, eta Maria Luisaren etxeko egoera ekonomikoa okertu egin zen.

3. Ezkondu aurretiko bizimodua

- **Erref:** AZK-004/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:29. **Bukatu:** 00:05:44

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>16 urterekin neskame joan zen. Orduan irabazten zuen dirua pozik ematen zion amari. Garai hartan zer-nolako bizimodua zuen azaltzen du: erromeriak, mezak, bizipoza gauza xumeetan izaten zuten... 20 urterekin ezkondu zen.</p>

4. Arratera txangoa egitean, dirua pixkanaka gastatu

- **Erref:** AZK-004/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:07:07

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Neskame zegoela, Arratera joateko 25 pezeta eskatu zizkion amari. Dirua pixkanaka nola gastatu zuen azaltzen du.

5. Ezkon-bizimodua eta baserrirako bidea

- **Erref:** AZK-004/005
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:09:25

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Bere senarrarekin ezkondu zenekoa kontatzen du. Haren familia ez zen aberatsa, baina gustura bizi izan da Maria Luisa han. Etxerako errepidea egiteko dirurik ez zuten, baina auzokoek ez zieten lagundu. Azkenean lortu zuten ordaintzea, eta bai senarrak bai berak autoa gidatu zuten urte askoan.

6. Autoak gidatzen zituzten emakumeak

- **Erref:** AZK-004/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:12:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Garai hartan, emakumeek gidabaimena izatea gauza arraroa zen. Gidatzen zekiten emakume bakanak zein ziren aipatzen du. Maria Luisak land roverra gidatu zuen 13 urtez, eta gerora beste zenbait auto erabili izan ditu.

7. Aurrerapenak baserrian ez uste bezain miragarriak

- **Erref:** AZK-004/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:14:50

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Bigarren haurra izan zuenean, senarrak garbigailua oparitu zion, baina ez zen nahi bezain mirarizkoa: garbitu bai, baina arropen inguruko gainerako lanak ez zituen egiten. Beren etxean gurdia zuten, eta hori ere aurrerapena zen inguruko aldean.

8. Neskame zeneko eta baserriko lanak

- **Erref:** AZK-004/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:07. **Bukatu:** 00:18:12

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame egon zen etxean gustura egon zen. Han zer lan egiten zituen azaltzen du. Auzolanei buruz hitz egiten du.

9. Katekista lanetan irakatsi eta ikasten

- **Erref:** AZK-004/014
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:27:17

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

14 urtean ibili zen katekista. Zergatik hasi zen azaltzen du. Irakatsi bai, baina ikasi asko egin zuen.

10. Familia eta lana nola bateratu

- **Erref:** AZK-004/015
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:27:17. **Bukatu:** 00:29:03

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Etxetik kanpo egiten zuen lan eta 7 seme-alaba zituen; hori aurrera eramateko asko lagundu izan dio beti koinatak, berekin batera bizi izan baita beti etxean. Emakumeak etxetik kanpo lan egiteari buruz hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2024-04-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com